

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Hasierako onespena ematea baso aprobetxamenduen ordenantzari

Legutioko udalbatzak, 2021eko irailaren 22an egindako ohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea baso aprobetxamenduen ordenantzari, eta, hala, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49 eta 70.2 artikuluetan eta Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege xedapenen testu bategina onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 56. artikuluan xedatutakoa betez, jendaurrean jartzen da espedientea hogeita hamar egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, aukera izan dadin hura aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkezteko.

Epe hori igaro eta alegaziorik aurkezten ez bada, erabaki hori behin betiko onetsizat joko da.

Legutio, 2021eko irailaren 30a

Alkatea

JON ZUAZO ZUBERO